

FRANZISKO ARRATEREN SERMOIETARIK BAT, EIBARKO EUSKARAZ

Juan SAN MARTIN

1. DEL PERDON DE LAS OFENSAS

Laster datozi hogezi urte Eibarko Aginaga auzoko San Migel parrokian, berto-ko jatorrien ikerketan ari nintzelarik paper zaharren artean euskaraz idatziriko eskuizkribuak aurkitu nituenetik. Sermoi sorta Eibarko hizkeraz idatziak. Uste gabeko aurkikuntzaren berriak emateko ordua iritxi dela iduritzen zait; eta zer ederragorik gure hizkuntzaren alde hainbeste ikaskizun eman dizkigun Aita Fr. Luis Villasante euskaltzainburu ohiari omenez eskaintza baino?

Sermoi haien egilea, ondotik emango ditugun argitasunen arabera, Franzisko Arrate Mendiola zeritzan eibartar apeza genuen, joan zen mendearean erdi aldera Aginagako erretora. Esan beharrik ez dugu sermoiok zein garrantzitsuak ditugun Toribio Etxebarriak eta nik neuk idatziekin XVIII. mendeko Ordenantza haietan zubi eginik gure euskalki mota zehatzago ezagutu ahal izateko.

Aginaga, Eibarko auzoa izanik, Ego ibarretik bestaldera dago, mendizandik, Artibai ibarrean, urak Urko errekatik Barinaga eta Markina-Etxebarritik zehar Artibaira isuriz.

Lehen berria, «anteiglesia de Aguinaga», 1602. urtekoa da¹. Gero, 1622.ean zer esanik eman zuen Valladolideko Chancilleriak elizatik freirak (sesorak) ken-tzeko agindua eman zuenean. Oraingo eliza 1755. urtean eraikia da. Zaharra or-dea, bertatik hurbil, bere lau hormen barrutian hilerra duena zen nonbait. Antza denez, haren egituraz XVI. mendekoa dirudi, baina eliza berrian bada Andra Mari gotiko bat, XV. mendeko imajina noski. Ikerketa ondorioz eman nituen berrien arabera, gotiko zaharra edo erromanikoaren azkenaldikotzat jo genezake oraindik gordetzen den bataio pontea². Erretaulako San Miguel Arkanxeluaren irudi ederra neoklasiko estilozkoa da, eliza berria eraiki zen garaikoa noski. Bes-talde, baita ere esan beharra dut Aginagako San Migelek, auzoaren beste hegalean

¹ Gregorio de Mujika, *Monografía histórica de la Villa de Eibar*, Irun, 1910, 196. orr. Liburuaren 156-157. orrialdeetan berri gehiago ematen du.

² Juan San Martín, «En torno a las primeras noticias y fundaciones de San Miguel de Aguinaga, en Eibar», Bol. R.S.V. de los Amigos del País, XXIX, 1973, 370-375. orr.

San Roman ermita duela bere babesean; XVI. mendeko egituraz, bere barnean mende bereko Santa Ageda imajina polikromatuarekin, zeinek duen ingurueta debozio handia³.

Kalahorratik berezirik Gasteizko Apezpikutegia sortzean, 1862. urtean, Franzisko Arrate eibartarra genuen Aginagako San Miguel elizaren erretore. Garaia haretan, Aginagak, 42 auzokide zituen eta 210 arima, 750 errialeko errenta jasotze zuen auzoko garaia orokorretilik⁴. Eibarko San Andres parroquia 8 apez laguntzailez hornitzen zen eta horietatik gazteenak betetzen zuen San Andresen bikaritzapeko izanik San Migel Aginagakoa, ekonomo gisa⁵.

Aginagako San Migelen zerbitzari zen lekukotasuna ematen digu Sebastian Insaustik *Las Parroquias de Guipuzcoa en 1862* liburuaren 54-55 orriideetan, baina liburu berean, huts egiten du ermiten zerrenda jartzean⁶

Franzisko Arrate Mandiola Eibarren jaio zen 1832.urtean. Gurasoak eibartarrak zituen, aitaren aldetiko aitonamona Bolibar (Goillibar) eta Zaldibartik (Zaldua) etorriak izanagatik.

Kalahorrako seminarioan egin zituen ikasketak. Hogetalau urterekin, 1857. urtean, barnetegi ikastaroak bukatzeko diru laguntza eskatu zuen⁷, eta Eibartik izan zuen abegi onari esker lortu zuen. Handik urtebetera apaiztu zen⁸. Bere karreraz *Literaria Patrium Ministerio* irakur daiteke, meza emateko eta konfesatzeko, Gasteizko fitxan ageri denez.

Lorenzo Gisasonaren lekua bete zuen nonbait, zeren hori agertzen bait da 1859an Aginagako erretore, eta Franzisko Arrateren izenik ez dugu aurkitzen 1861era arte. Gutienez 1873ra hor jarraitu zuen, D. Jesús San Miguel Eibarko San Andrésen bikario jaunak ziurtatu didanez, eta une horietakoak ditugu sermoiok.

Testua irakurtzeaz edonor ohar daiteke bizkaieraz idatziak daudela, Eibarko era jatorrez. Gainera, eibartarrok ohi bezala, erderatikako hitzak barra-barra erabiltzen ditu, batere axolarik gabe. Baina hala ere, zenbait aditz ilun gelditzen zaizkigu bere grafiagatik eta, batez ere, ohizko laburpenengatik. Honen argigarri, ondoko lerroetan, zenbait adibide emango ditugu, aditza bertan agertzen den eran, osaturik eta inoiz gipuzkeraz, edonork hobeto uler ditzan. Hitz guti batzurekin ere hori egingo dugu, Eibartik kanpo hain ulergarri ez direnean.

³ J. San Martín, «La ermita de San Román de Eibar y la devoción a Santa Agueda», *Bol. R.S.V. de los Amigos del País*, XXXI, 1975, 585-589. Eta Gogoz, 1978, 83. orr.

⁴ G. Mujika, aipaturiko *Monografía Histórica...*, 157. orr.

⁵ G. Mujika, aip. lib., 134. orr.

⁶ Sebastián Insausti, *Las Parroquias de Guipúzcoa en 1862*, Donostia, 1964, 54-55 eta 169.

⁷ Iku agiriak Kalahorrako artxibategian. Archivo Catedralicio de Calahorra, Ref. Sig^a. 11/124-47.

⁸ Gasteizko Apezpikutegian datorrenez, Sección de órdenes de Calahorra, leg. 124-47.

Adibidez, eibartarrontzat hain arrunta den «fiesta», inoiz «afariketako» ere esaten dena haurren «fiesta» denean, adinekoen haurkeria beraz; haur jolasa edo haurren josta esan nahi du. Horregatik, serioski hartu behar ez diren gauzak edo egintzak «afariketakoak» edo «fiestakoak» dira gure argotean. Oroi, gipuzkerako «festa» Eibarren «jaia» dela.

«Iciotu» ordea, gaur egun «ixotu» (piztu) bezala hain maiz erabiltzen dugu-nak San Millaneko kartulario zaharreko esaldiaren oroitzta dakar.

Hurrengo, —gaz atzizkiaren ordez —quin (—kin) noiztikan nahasten duguna-ren lekukoa aurkitzen dugu. Edo, *bagerik*-ren laburpena, *barik* noiztikakoa den.

Era horietan, adibide gisa, aipagarrien iduritu zaizkidan erak jartzen ditut zerrendan.

Franzisko Arratek, ageri denez, euskarako ortografiarik ez zuen ezagutzen; horregatik, *txa*, *tza* eta *xa* era berean idazten diu, guzietan *cha* soilik erabiliz. Horrek erakusten digu Eibarko hizkera, erdal hitzak maiz erabiliz, jator zerabile-la. Gainera, badirudi, L.L. Bonaparte printzearen eraginik gabe ziharduela, zeren haren lanak ez bait zituen ezagutu; eta gaztelerazko grafiagatik igartzen zaio eibartar erabilera inongo kutsadurarik gabe jabetzen zitzaiola, gurasoengandika-koa, inolako aurreiritzirik gabe erabiltzen. Idaztean, entzuleak zituen gogoan. Horri esker, lekuko zuzena dugu, gure hizkera edo euskalki mota joan zen men-dearen erdialdean nola erabiltzen zen ziur jakiteko. Lekuko fidagarria bere es-kuizkribua.

Hara hemen zerrenda labur bat irakurketaren lagungarri:

bere, be (gaur *pe* maizago erabili ohi da), ere.

cenailliak (*zenailliak*), seinaliak. Señales.

daladirala (*dana-dala*). Sea como sea.

cenetic (*senetik*), senetik; senetik urten da, senetik irten da.

ecebes (*ezebez*), ezer ere ez.

eracustescu (*erakustesku*), erakusten deusku, erakusten digu.

erreuchechugu (*erreutzetsugu*), erregutzen deutsugu.

esan (*ezan*), izan.

espada (*ezpada*), ez bada.

espanis (*ezpanitz*), ez banintz.

fiestaco (*fiestako*), jolaseko. Simulado, de broma.

guichienes (*gitxienez*), gutienez. Por lo menos.

gurosue (*gurozue*), gura dozue, nahi duzue.

iciotu, (*iziotu*), ixotu, piztu. Encender.

idistia (*iristea*). Dar alcance, alcanzar, conseguir. **Iritxi** (*iritsi*) hitzetik.

inobe (*inobeez*), inor ere ez. Zeren, batzutan, **inobe-rekin** egiten dugu **inor** ere eta **inor** ere **ez**.

lequisu (*leikizu*), leuskizu, leuzkitzu.

ondioc (*ondiok*), oindiñok, oraindik.

urrian (*urrean*), hurbil.

Honenbestez, testua bera osorik emango dut beharrezko iduritu zaizkidan oharrez. Jatorrizko eskuizkribuak idazkeria zaila du eta ulerkaitz diren parteak (sic) jarriaz uzten ditut, noizbait norbaitek irakurketa hobeago bat egingo duen ustez.

(1/Koartilla)

2. DEL PERDON DE LAS OFENSAS

**Ego auten dix vobis: Diligite mimicus vestroi
benefacita his qui oderun voi, orata pro perrequen-
tibus et caluniantibus vos.**

Cristau eguchascuac esdau esanbiar judichuac lez bacarric obra asalecuac euquesenai onchat espada dirauscu Jesucristoc obren Santidadiadi gueitu biechala pureza intenciñoco eta viocheco sucentasuna bacarric obra on olacochiequin espera gueinque Cerua. Ceun¹ obra onac espadira perfectuaak eta fari-seuenac baiño esaries sartuco Ceruan.

Ceinda bat lapurra dan es bacarric bestiari quen-chiarren bere gaucia, baita bere decio esan dabelaco quencia, igualmente Sn. Juanec dirauscunes² llegachenda guizona iltera es bacarric quenduric vicicha projimuari baita bere gorrotua euquiric bere contra. Orregatic dirascu Jc. aguinchen dechuet: amai dei-chusela gorrotachen oitiana eta eguiñ deichosuela ondo gaisqui eguiñ dechuanari eta erregutu deichela perseguidu eta falso testimoniuac jaso dechuecenegaitic.

Obligacino gach eta andia bacarric Jº. on³ batec ipini leiquiana eta bacarric berac bere graciaquin cumplidu gueinguina... Obligacino altu eta perfectua cumplidu esdabena judicho gentil eta bacarric Cristaueri escachen jacuena Obligacino estu eta nai ta naiscua; bada bertatic dator arimaco baque unicho anaitasunecua baque famelichacua eta baque verdadecua.

¹ ceun, zeuen edo zeuon. Inoiz laburturik (*zeun*) hala erabiltzen dute eibartar zaharrek.

² dirauscunes, dirauskunez. Hark guri esaten deuskunez/digunez.

³ Jº. on, Jaungoiko on.

Sn. Pabloc esanetan Jesucristori: S Jc. nere anaiac ofendichen banau cenbat bidar parcauchochat? bastante da parcatua deichoran 6 zaspi bidar? Es contestau echan Jc., caspi bidar es da bastante parcatu biechasu⁴ ceure anaiari ola da eta beti, Mandamentu danen oservanchiac dichugu.

Juan discipulu eguichascuac beste guizonengandic; mandamentu jasochen dituana guizonen semiac Jn. semien dignidades da Mandamendu achenic ichi dabezena bere testamentuan cumpliduric berac lelen-go curuchetic escatu ebanian baque eta parcacinua bere berduguendako: Aita Neuria par catichosue.

Eingosuan⁵ acaso projimuac culpa bata abertidu baco bat broma fiestaco bat, falta eceves bat; acaso esango da cumplidu dabelaco abligacinuaq.n ceguidu gura esditualaco bestien perjuiciuac guero ambicino charrac pretencino injustu eta falchuac. Achenic aca-so esango da culpable desondradu gura esdituala: gure pasinuac onore ontasun conciencia eta locha eta perjudicau balesun⁶ se interes eta deituan esanda bere injusticietaco /---/ Ceruco instrumentu bat lez, modu orretan /----/ castigau gura izan dituana Jc. euren lujuricha eta gaistaquericha secretucuegaitic. Baiña guc Ji. sor dechagu falta amaibacuagaiti ----/ ascuegaitic/ ----/eta viot/----/⁷ gogorragaitic. Sor dechagu Ji. ain-bestre mecede artutacuagaitic ainbeste escandalu emondacuegaitic /----/lapurreta maldecino murmuraciona eta/----/gaistaquericha egindacuegaitic/----/Eli-zaco gauzeten

Ala projimuanac sor descuesenes eceves bachuc eta Ji. guc dechagus sor andi bachut. gauza sorprendential! Jc. parcatu descuchen instantetic sor andichac⁸

⁴ biechasu, biar deutsazu

⁵ eingosuan, egingo zuan, egingo eban.

⁶ balesun, baleitzun (berak-zuri).

⁷ Borraturik aurkitzen dena sartzera, idea berak beste erabateko irakurketa ematen digu, hitzen aldetik, eta merezi du jartzea azpiko hitzok zer diren; hara hor esaldian azpimarraturik: «Baiña guc Ji. sor dechagu falta amaibacuagaitic andiagaitic esanegaitic malesia eta viotsimispera bacuagaitic...»

⁸ sor andichac gero gainetik lerro bat du eta badirudi borratzeko egina dela.

gure pecatuen injuricha andichac ondioc pe⁹ daucagus /----/ gure orguillua eta ecin convertidu gara par cachera projimuac eguin descusasan injuricha eceves bachut. Oindioc icusico gaitue alimentachen gorroto zarrac, unetan guresta¹⁰ escandalo saltachen dabenac mundu gustian vistara, cedula esdogu cedidu gura eta bildurres ori concediduric baque projimuez eta Jc. es- cachen descuna /----/ beragaitic.

Da bada fedeco gauza bat parchachen espadechagus projimuari egin descuzan maldadiac Jc. pe esdescusela parcatuco. Cergaitic faltachen dosun gustian obligacinora ucaturic projimuari sor dechagun misericordicha bat. /----/ daucasue obligacino bat usacheco misericordia /----/ cergicatic mundo fameliza andicha ecin leeguian¹¹ vici, gorde ecic bata bestiandaco cadi- dadeco leguian.

Eta eguicha. Nun vilatucoda cedula guizon ain reservan bere juiciuetan ain ajustaua bere berbetan re- presino bacua bere condutan cedula inor ofenditu es- dabenic? Emenche bertan nundago cristau erabili es- dituana asmuchar icilecua asmacinochar desaire falso testimonio publicuac /----/ obra gogorrescuac juicio arinac edo berba asaltauac esan esdituanic projimuaren contra? Nun dago guizon eguichas daiñoric eguin esdabenic edo perjudicau esdechanic projimuari deitu edo interesetan? malesias espada ligereza eta conside- racino baric? Bachuetan basara ofendituac beste ba- chuetan sara ofensoriac.

Libre bagengu gorrotachia eta archia benganchia ofenditu gaituan contra; derecho. Iguala /----/ euci leuquie bestiac pe /----/ gorrotau ala venganchia ar- checo guere¹² contra derecho ceiñequin juango guinaquesen castigu baric projimuaren vicicha acienda eta deituanen contra igualmente eraco¹³ leuque projimuac pe castigu baric guere vicicha acienda, eta dei- tuan contra joateco ofenditu gaituenac egon biarco

⁹ pe, be, bere.

¹⁰ guresta, gura ezta.

¹¹ leeguian, leikian edo eikean.

¹² guere, geure.

¹³ eraco, eratuko.

leuquie guere coleraco enojuaren vildurres momentu bacobian, /----/ baiña gueuc pe momentu bacobian egon biarco guenduque beran gorrotoco /----/ bildurres. Elicheques egongo, seguru guere compaiñian ceinda gueuve egongo esguinchaquesen euren compaiñian. fuertiena edo malesiosuena esango¹⁴ lichaque afortunatuena aldencheco vestien venganchatic: presisa esango lichaque escutachia basuetan¹⁵: inobe esluchaque egongo seguru es bere echian eta es iñonian. gustiac egongo lichaques bildurres billatuco ete diran guizon ilsailen¹⁶ batequin, famelicia esango lichaque presicho bat lez, munduco bachar andia guizon burruquen circulu bat lez. Naturalezaco lasua gustia ausico lichaque. escutauco lichaque confianchia /----/ seguranchiac galduco lichaque momentu bacobian ausico lichaques aisquiresunac eta munduco bachar andicha etorrico lichaque ondachera. Eta ainbeste ondamendin bistan Jc. ipini baric ichileique ofensen paracincuan mandamentua? Bai mandamentu ori da.

Sigue, del perdón del enemigo

ural¹⁷ eta necesarichua da munduco bachar andian fundamentua. Ce ederra justu eta viarra dan, eta paracacinoco erachichen demasean mandamentu ondo (sic) deichesuenoc gogorra, Considerau suc bestiac pe obligacheituala parcachera.

Cenbatec ceuc esdaquisuela confesorian consejuz edo conversino eguichasco baten virtutes enhun dabelaco /----/ paracacinoco Sermoi Santu bat abandonau dabe ofendichia edo ichideche acusacino murmuracino eta falso testimonueri galduco cinuecenac beti? Gaur gozachen bosue¹⁸ baquia eta basara¹⁹ dichosuac, sordechasua Jc. ceueri parcacheco bestieri

¹⁴ esango, izango.

¹⁵ basuetan, batzuetan. Bainaz **bazuetan** era ona izan daiteke, zeren hala erabiltzen bait da gure auzoko Plaentzian.

¹⁶ ilsaille, iltzaile. Hemen berriz ere, kontsonante xistukarien aldakuntza nabari da, gaur egun oraindik Plaentzian erabiltzen den erara idatziz, Eibarren **tz** dena soraluzearen ahoskatze erabilleraan z bait da.

¹⁷ ural irakurtzen da, baina gainetik marratxo bat ageri denez beste zerbaiten laburpena dirudi.

¹⁸ bosue, bozue, ba-dozue.

¹⁹ basara, bazara, eibartar zaharregandik maiz entzuten da **zara**, zarie-ren ordez; singularra pluraltzat erabiliaz.

ipini dechen mandamentuari. Ah! bestiac gorderic mandamentu ori, eguin badabe gustia ceun²⁰ provechuraco. Cergatic suec egunes esdosue eser euren provechuraco gorderic mandamentu ori? Gurosue egon dein mandamentu bat, locheco bestic min (sic) eta obrac? eta ceundaco²¹ libre? Gurosue parcatuac esansaitiasen²² parcatu baric bestieri? Gurosue eguin daquisuen justicia daiñuac eguin dechuesenari eta ceun falta pecatu eta gaistaquerichac astu eta parcatuac es anditisen betico? Gurosue justici osua bes-tiendaco eta ceundaco bacarric misericordicha? Gurosue bestiac viar eguideicen pagau baric, baiña ceuc aldan gustia quenduta. Yaque beste nauci baju eta igualac parcatu dechuen eguin biosue²³ beste ainbes-te. Es dosue eguiten bada erremedicho baric ba janes juango saries infernuco su isugarrichtetara.

Ofensoriac topachen espadau bere necesidadi-
ra Cadidatdecoric apoioric gueugan; ecin gueinque es-
pera graciariac Jn. precencian.

Gura espadosue euquichia berbaeraric ceuen enemiguaquin eta idistia Jc.pe esaitu icusi guraco eta gorde guraco bere compañian. Ceun enemigua sar-chen /---/ esposu ceun viochetan ceuec pe esaries sartuco Jn. vioteta amorichuan. Usauco da ceuequin neurri iguala ceinda ceuc²⁴ usachen dosuen bestiegn. viochian daucasuen artian gorroto eta venganza ori, religinoco obra onac esdechue balicho ceruraco eta /---/ Eliza ama Santiac botacockus decreto Condena-cinoenac ucatu bendecino Santua eriochaco orduan. Es ceun oracino luciac, es ceun limosna andichac es vareu²⁵ es Mesa es ceun penitencia andichac aisquiratuco saitue Jn.

²⁰ seun, zeuon. Hau ere maiz entzuten da sinkopatu gisa, zeun=zeuon.

²¹ seundaco, zeuendako, zeuondako.

²² esansaitiasen, izan zaitiezan.

²³ biosue, bear dozue.

²⁴ ceuc (zeuk), zeuk, zeuok.

²⁵ vareu, barau

Da ista fidelis et coram bat paracletum ex parte regum
progenitum et quidem cum maledictione de peccatis. Iusta
paracletus ergo factus est in fortia obligatione
entre creaturam pro primaria iustitia aqua in gen-
eracionib; est. da ista jecurum ducatur et obliga-
cione et trahitur in interior dia ergo aqua et
anobligatio ergo factus est in fortia obligeatione
cum pessima iuste esse deo grande scilicet bestiam
duos castellatus logueretur.

Ella explica que las virtudes de cada ejer-
cicio residen en su ejecución con apariencia base
y belleza sin excesivo lucro, leve condición -
ciencia inviolable establecimiento de la certeza
y verdadero cristiano establecimiento de la asunción
y felicidad asunción de los deseos, falso cristianismo
de la base asertante esas ciertas y las propiedades
y virtud. Nun clero quiso equilibrar dandole equi-
valencia al falso y el verdadero establecimiento pro-
piedad de la virtud establecimiento de la
verdad y la consideración de la base. Dicho esto
se vea su ejecución de este establecimiento
dado su operatividad.

Errezachen dosuenian Aitaguria esaten dosue: Parcatigusus guere sorrac gueuc parcachen dechegun lez gueure sorduneru au da suplicachechugu tratagaisuenla geuc tratachen ditugun lez bestiac eta parcatu ecic edo parcaturic gaisqui esaten dechasu Ji. oracino orretan: parcachen espenchegu ofendichen gaitueneri, erreuchechechugu²⁶ esdaigusula parcatu.

Aretara viotgorrotu envidichen eta rezentimentus beteric projimuan contra oracino ori errezachen dosunian, desafichachen dosue Jº. eta provocauric guerria odichuari odichuagaitic. Conformachen sara esdala egon suendaco es parcacinoric eta es amorichoric. Suen oracinua convertichen da orduan maldiciñuan. aichu biar lezquisunac parcacinua provocachen dau /----/²⁷ Jn. enojua. Jecristoc dirauscu²⁸ suetatic bacochac parcachen espeche²⁹ viochetic bere anaieri esango dira condenauac baiña parcachen beche esango³⁰ dira pagauac.

Ola bondadian Ola Jn. humailtasuna! Ofenza sarritan ceinchuequin quejachen garan sarrichagotan³¹ dira beguitancino bachuc /----/³² aprensino bachuc eguiuchascuac baiño. Sarritan esan dira eguinac maglesia³³ eta intenciño char baric, sarritan esan dira provocau eta medeciduac guere partetic; baiña Ji. eguin dechaguzan ofensac esan dira eguinac malecia gustiaquin, esquergaistotasun gustiaquin. Ofenditu dogu Jº. maguestade eta grandeza amaibacua gauza gustien Criadoria guere Jn. eta javia. Mundu gustico Erregia

Eta orraitioc bere Jº onac gura dau comprendichia esan dein guizoneri aguinduechen mandamentu onetan jartzen da condecino igualian, igualacheitu bere derechuac criaturianaquin obligachen da parcacherera parcachen bechegu guere anaieri.

dichosua bada cristau parcachen dituana generosidade gustiaquin ofensa eguin dechesanac. Cergatic

²⁶ erreuchechechugu, erregutzen deutsugu.

²⁷ Borratuaren azpitik **Castigua** irakur daiteke.

²⁸ dirauscu, dirausku, hark esaten deusku/digu.

²⁹ espache, ezpetse, ez badetse ez badeutse.

³⁰ beche esango, betze izango.

³¹ sarrichagotan sarrixagotan, sarriagotan.

³² Une honetan borraturik agertzen da honako hau seguichasena **baiño**.

³³ **maglesia**, hala dago idatzeirik, bestean **malesia** bezala agerten dena.

asegurachen daben ciurtasunaqn. Jn. Contra eguin dituan ofensen parcacinua, eta apuntau leiquian Jesusen odolaqn. bere izena justuen liburuan.

Enemiguendaco amorichua da agradabliago Jº. martirichua bera baiño eta dirasen Sn. Gregorioc Sn. Estebanegaitic medecien ebala gueisago erregutu eba-laco verduguegaitic bere vicichia emoebalaco Jesuse-gaitic baino. Sn. Juan Galvertoc /---/ bere anai ilebanari parcaturic viochetic eta libauric /---/vicichatic sartu san Elisha baten escachecho Ji. bere falten parcacinua eta oraciuhan euala Sº Cristuan aurrian icusi eban Sº Cristº movichen vurua beragaz dirauchala buruaqn. Cein da ceuc parcatu ditusun neuc pe par-cachen dechudas. Jesto. dirasen ofensen parcacinua urten biar dabela viotchetic berba orretan Conde (sic) disputa eta asarre publicuac baita bere asarre suave eta bildurrescuan eta resentimentu cecretucuac barru-correc armachen espada be be³⁴ ofendichian besua ichulcheco ofensorian odola; armachen dabe orraitioc bere intencino eta miña galcheco bere ondra eta eder-to balicho dabena gueichago baiño.

Eguichas enhuten da esaten: nic esdot gorrotachen nere enemigua; baiña ecin astu jata eguin destasen malac esdaucu vorondate charric; baiña esdot gura eser berag.n es daucat viochian gorrotoric baiña esdot icusi gura nere presencian³⁵. Orra parcache modu bat berbas baiña es efectus.

Eta eguichas dirauco Sn. Juan Crisostomoc gustauco lequisu J.c parcachia modu onetan? Gustauco lequisu J.c esango balechu: parcachen dechudas ofensac, es dechut gura malic³⁶, baiña esdechut desio icustia nere urrian? Gustauco lesquisu J.c asolviduric erainic ichuran lurrian³⁷. Conferc. parcatu es espalechu Ceruan? Esango lichaque ori parcacino³⁸ egui-chascubat J.n partetic? Orain bada suen parcacinua da ichurasco bat al salaco bt, cergatic urtechen esbaden viochetic.

³⁴ espada be be, ezpadabe ere.

³⁵ es daucat viochian go- eta gura nere precencian esaldiak lerroz gainetik borraturik dau-de.

³⁶ es dechut gura malic, gainetik marraz borraturik dago.

³⁷ ichuran lurrian lerroz tatzaturik dago eta aurretik, gainetik erainic gehitua.

³⁸ Esango lechaque ori parcacino, gainetik bere eskuz borratua agertzen da.

dagos beste bachuc ³⁹ hipocrita eta falso bachuc visitache / ituenac ofendichen dituenac ⁴⁰ errebibidu echian. Saludau convidau eta alabanchas betecheituenac; baiña achetic biar eguiten dabe erreabajachen bere deitua ⁴¹ murmuracino charrañqn.

/----/ ⁴² Es dira geldichen intriga escutueqn. bajchen bere utilidadiac eta trastornachen /----/ bere vicimodua ⁴³ es dira gueldichen asmo bere intriga aspijan eta gusurre.

Bada au gustia es da bestegausaric gorroto envidicha vengancha eguichascu bat.

Es dot esangura orraitioibe daladirala ⁴⁴ biar jacola ⁴⁵ gorrotoco ceñailliac ⁴⁶ bat colera eta odolac icio-tuta bere cenicic urten da, esper (sic) tachia gorroto bat icustias beste baric enemigua enchutias beste baric bere berbia bates bere ⁴⁷ eria frescua dananian ⁴⁸ movimentu pronto colera eta odoleco onec errezoian au-rettic urtechen dabenac geungandic guere vorondatia parte artu baric euretan dira naturalezan movimentu bachuc culpa bacuac an eta llegau leiquezenac esatera meritucuac procurachen bogu ⁴⁹ guenchen /----

----/⁵⁰

Acordau saite Sn. Cristobal Martiri Andichag.n artu eban plaza publicuan matraillaco bat persona baju batengandic bere colera euan coleras beteric an eizan ofensorian gainera bota eban lurrera eta etaric bere espatia juan iltera. Baiña acordauric prontuan mandamendu onequin /----/ ⁵¹ urteban coleratic gor-

³⁹ bachuc egile berak borraturik.

⁴⁰ —ituenac ofendicheituenac borraturik.

⁴¹ Lehenik meritua ipini zuen lekuaren gero deitua jarri zuen.

⁴² Hemen, borratutako lerro t'erdi, irakur ezinak dira.

⁴³ bere vicimodua, borraturik; ondorean bere cereguinac borraturik eta gainean vicimodua soilik idatziz.

⁴⁴ daladirala, dala-dirala, dana-dala, edo diranak-diraez.

⁴⁵ biar jacola, borratua—

⁴⁶ Ondorean bat lez borraturik eta ac jartia bat jarraian.

⁴⁷ bates bere-en ondotik gorrotua borraturik eta eria soilki jarraian.

⁴⁸ dauanian ote?

⁴⁹ bogu, badogu-ren laburpena.

⁵⁰ Lerro borratuaren azpitik honako hau irakur daiteke: **eurac**. Es da pectu experimentalia.

⁵¹ ofensen parcacinuan mandamentº. borraturiko lerropean irakur daiteke.

de eban espatia eta vueltauric erri diar eguitebanagan-a: Ildeila atrevidua... contestatu eban: neuc ilgo neu-que cristaua espanis⁵²

Generosidade onen urrengo llegau zan ezatera Mar Sn. Andi eta Martir andi bat gerrerososua lurrian eta gloriosua Ceruan.

Modu onetan eranchun biechagu⁵³ pasiño tenta-chen gaituanari eta mundu movichen gaituanari ven-ganzara Ez gara Cristauac. Bada cristau eta guizon parcachen dabena.

Quendu deigun guere enemiguac daiñacheco as-mo gustiac viurtu gaitian guere amistade eta amori-chora eta corpucheco velarrichequin espada ve gui-chienes /---/⁵⁴ arimacueq.n Enchun gozaus Espiritu Santuari amorichoco verbac. asegurauco descuenac guere parcacinua consolauco gaituana vicihan cenda-tu eriochaco orduan eta eregui biена venturanchaco atia.

Amen

⁵² espaniz, ezpanintz, ez banintz.

⁵³ biechagu, biar deutsagu.

⁵⁴ guere, borraturik.

3. AZKEN OHARRA

Eskuizkribuzko sermoi sorta hau 1972. urtean aurkitu nuen Aginagan, Jon Etxezarreta apaiza lagun, hango jatorriak ikertzen aritu nintzenean. Denak esku berekoak direnez, zalantzarak gabe, Franzisko Arratek idatziak dira.

Aurkitutako sermoi sorta berogeta seik osatzen dute. Garbian jartzen ahalegindu naizen hau bigarrena da, lehenbizikoaren hasierako orria oso ilun dagonez, irakurri ezinezkoa delako hautatu bait dut bigarrengoa.

Sermoiotarik sei, fotokopiaturik, Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiko idazkariari igoori nizkion 1987an: *De lujuria, De abaricia, De la palabra de Dios, De la Trinidad, De misericordia*, eta *Irán los malos a los castigos eternos* izenburudunak.

Lanean jarraitzeko adorea dutenen aukerarako, sorta osoa Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekari uzten diot.

Guziek, izenburua gazteleraz dute, batek ezik. Bat hori 29.a da, izenbururik gabe era honetara hasten dena: *Gaurco E^a eracustescu...*

Sermoi batzuk bi aldiz daude; baina, gai berdina izanagatik, ez dira berdin idatziak. Hara hemen zerrenda osoa, aurkitu nituen ordena berean; guziak koartilletan bi alderdietatik idatzirik daude¹:

4. SERMOIEN ZERRENDA

1. (sic)... atoria.
2. Del perdón de las ofensas.
3. De la palabra de Dios.
4. De abaricia.
5. De la Trinidad.
6. De Misericordia.
7. Iran los malos a los castigos eternos.
8. Confesión.
9. De Contrición.
10. De Oracione.
11. De eternidad.
12. De la obligación de los hijos el obedecer a los padres.
13. Del Matrimonio.
14. De la muerte del pecador.
15. De la Misericordia de Dios.
16. De lujuria.

¹ Horien artean, koartilla bat gazteleraz, non ematen dituen hilak eta bataiatuak liburuan jartzeko arauak, honako izenburuaz: *Para entierro, Para bautismo*.

17. Gloria del alma.
18. Tribulación.
19. De envidia.
20. Maldición.
21. 51 precam (sic) de Dios.
22. De abaricia.
23. Muerte del justo.
24. Muerte del pecador.
25. Del Amor.
26. Del Sacrificio.
27. De la muerte de los justos.
28. Disposición para comulgar.
29. Gaurco E^a eracustescu milagro miragarri bat.
30. De la verdadera y falsa virtud.
31. De Oración.
32. De la murmuración.
33. Del negocio de la salvación.
34. Notas del Juicio general.
35. De las malas compañías.
36. De Eucaristía.
37. Pecado original.
38. De la Oración.
39. De la murmuración.
40. Amor del proximo.
41. De la (sic) de las Conversiones en la hora de la muerte.
42. De la Confesión.
43. Del Infierno. Tormentos de los condenados en el Cuerpo.
44. Del Purgatorio.
45. De la Caridad.
46. Juicio particular.